



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailak 10

Vitoria-Gasteiz, 10 de septiembre de 2024

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK PEDRO MARI OTAÑO BERTSOLARIAREN FILM BIOGRAFIKOAREN PROIEKTUARI DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak, Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eskatuta, gaurko bileran onartu du Eguzki Art Zinema produkzio etxeari 40.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea. Enpresa honek "Ombuaren itzala" filmaren bidez, Pedro Mari Otaño bertsolariaren biografia eta bertsolaritzari egindako ekarpenaren garrantzia balioan jarri nahi du. Jaurlaritzak proiektu honen finantzaketan lagunduko du.

Pedro Mari Otaño bertsolaria eta poeta ospetsua izan zen, bere garaian bere bertsoen lirismoagatik estimatua, bertso paperak moduan ezagutzera emanak. Proiektu honek "ahantzuratik" atera nahi du eta horretarako, "Ombuaren Itzala" filma jorratzen ari da. Patxi Bisquert zinemagileak sustatu, ekoitzi eta zuzentzen du film hori eta Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza honen bidez finantzaketan lagunduko du. Filmaketa Euskadin eta Argentinan izan dira eta aurreikusita dago 2024ko udazkenean estreinatzea.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2,7 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMETARA

- **Hizkuntza indartzeko irakasleak kontratatze edo programak ezartzeko baliabide bibliografikoak eta didaktikoak eskuratzeko gastuak ordaintzeko erabiliko dira laguntzak**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 2024-2025 ikasturtean, 2,7 milioi bideratuko ditu hizkuntza indartzeko programak gauzatzeko dirulaguntzetara. Iritsi berriak diren ikasleen hizkuntza indartzeko dirulaguntzak dira.

2,7 milioi euroz hornitutako laguntza-lerro honen bidez hezkuntza-sisteman hizkuntza menderatu gabe sartzan diren ikasleen beharrei erantzun nahi zaie. Hezkuntza testuinguru kulturantzunera egokitzea beharrezkoa da ikasle bat bera ere atzean gera ez dadin. Hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna hobetzea funtsezko ardatza da hezkuntza-sistemara iritsi berriak diren ikasleei sisteman sartzea errazteko. Beraz, hizkuntza indartzeko programa Euskal Hezkuntza Sistemak aukera-berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua bermatzeko duen tresnetako bat da.

Jatorri ezberdinetako ikasle etorkinak kopuru eta helmuga desberdinetan etengabe sartzan dira ikasturtean zehar Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-sisteman. Horregatik da garrantzitsua laguntza horiek eskuragarri egotea; izan ere, 2023ko urtarrilaren 31tik unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman lehenengo aldiz matrikulatu diren ikasle berrien beharrei erantzuteko pentsatuta daude. Laguntzak irakasleak (hizkuntza indartzeko irakasleak) kontratatzearekin edo metodologia berritzaileak ezartzeko baliabide bibliografikoak eta didaktikoak eskuratzearekin lotutako gastuak ordaintzeko izango dira.

Hezkuntza

MILIOI BAT EURO LHREN ETA LAN-BIZITZAREN ARTEKO JAUZIA EGITEKO

- **Hezkuntza Sailak 999.538,88 euro bideratuko ditu Lanbide Heziketako ikasleek enpresetan egonaldiak egiteko**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Begoña Pedrosa Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Lantokiko Prestakuntzako modulua (LP) egiten duten Lanbide Heziketako ikasleen enpresetako egonaldietarako beken deialdia egiteko agindua. Egonaldiak ikasturte honetako iraila eta martxoa bitartean egingo dira.

Deialdiari esker, ikasleek aukera izango dute LP modulua egin duen enpresan egonaldia beste hiru hilabetez luzatzeko, modulua amaitu ondoren eta ebaluatzen duten bitartean. Hau da, ikasleek udara arte jarraitzeko aukera izateko denbora-tartea estaliko dute.

Hezkuntza Sailak 479 laguntza emango ditu, eta onuradun bakoitzeko gehieneko zenbateko garbia 1.800 eurokoa izango da (600 euro hilean). Onuradunak hilean jasoko dituen 600 euroez gainera, Gizarte Segurantzako Erregimenean alta ematea ere barne hartzen du laguntza horrek.

Beken % 20, hau da, 96 beka, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleentzat izango dira. Beken % 50 berriz, 239 beka, Erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat eta gainerako % 30a, 144 beka, Goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat.

Prestakuntza praktikoa jasotzearen garrantzia

LHko ikasketa guztiek barne hartzen dute bigarren urtean Lantokiko Prestakuntza (LP) izeneko modulua. Prestakuntza praktikoko fase bat da, enpresa-ingurune erreal batean egiten dena, eta, arau orokor gisa, ikasleek ikasten ari diren prestakuntza-zikloko modulu profesional guztiak gainditu ondoren egiten dute.

Deialdi honek gehienez hiru hilabetez luzatzen du enpresako egonaldia, eta helburua da LHko ikasleek euren gaitasun profesionalak hobetzea, bai teknikoak bai zeharkakoak, modu horretan haien enplegarritasuna eta lan-merkatutarako sarbidea ere hobetzeko, behin titulazioa lortzen dutenean.

Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZAK LHKO IKASLEEN IDEIA EKINTZAILEAK BULTZATZEN DITU

- **Ekintzailletza Lanbide Heziketan sartu izanari esker, urtean 70 enpresa baino gehiago sortzen dira, eta horien biziraupen-indizea % 70ekoa da**

Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketako azken mailako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko dirulaguntzen deialdia onartu du gaurko Gobernu Kontseiluan. Etapa horretan, ikasleek sektoreari buruzko beharrezko ezagutza teknikoa dute, eta negozio-ideia bat garatzeko gai dira irakasleen laguntzaz. Modu horretan, negozio-ideiak (produktuen edo zerbitzuen prototipoak) garatzen dituzten enpresa-simulazioko proiektuak sortzen dira.

Kultura ekintzailea sustatzea da Lanbide Heziketaren helburuetako bat. Ikasleen artean trebetasun ekintzaileak sustatzeko gaitasun profesionalak eta pertsonalak indartzea, aldi berean, haien prestakuntzaren zutabeetako bat da.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak deitutako laguntza honek 166.000 euroko inbertsioa dakar, eta ikastetxe bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa da.

Euskadiko LHn egindako lanari esker, ohikoa da ikasleek urtean 70 enpresa baino gehiago sortzea. Ikasleek euren ikastetxeetatik lan egiten dute, eta ikastetxeetako irakasleen monitorizazioa eta laguntza dute. Lanbide Heziketaren apustuari esker sortutako enpresen biziraupen-tasa % 70era iristen da.

Ikasgeletan ekintzailtzari emandako bultzadak gaitasun eta jarrera zehatzak lantzeko aukera ematen du; berrikuntza, sormena, autonomia, autokonfiantza, erantzukizun-sena, ekimena... dira ikasleek, euren proiektuak LHko ikastetxearekin eta irakasleekin batera abian jarriz, bereganatzen dituzten ezaugarriak.

Gizarte-kohesioko eta jasangarritasuneko irizpideekin lerrokatutako negozio-ideiak

LHko ikasleek garatzen dituzten ideiek berrikuntzarekin, Garapen Jasangarriko Helburuekin eta ekonomia sozialeko balioekin bat datozen irizpideak bete behar dituzte. Ikastetxeetatik honako alderdiak garatzeko bideratzen dira proiektuak:

- Teknologia aurreratuen erabilera bultzatzea. Hala nola, digitalizazioa (errealitate birtuala, errealitate areagotua, adimen artifiziala, etab.), konektibitatea, robotizazioa eta automatizazioa, zibersegurtasuna, datuen analisia.

- Jasangarritasuna lantzea: energia-efizientzia, ekonomia jasangarria, ekonomia zirkularra, osasuna 4.0, Biozientzia eta Bioteknologiak, etab.
- Industriaren eta/edo zerbitzu aurreratuen sektoreari laguntzea.
- Garapen Jasangarriko Helburuen garapenarekin eta/edo ekonomia sozialaren balioekin lerrokatuta egotea.
- Aniztasuna eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzen laguntzea, edo pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko gizarte-osagai bat izatea.
- Genero-rolak eta -estereotipoak ez errepikatzea eta/edo emakumeen ekintzailtza sustatzea.
- Proiektuaren garapenean euskara erabiltzea.

Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

GOBERNU KONTSEILUAK PORTUETAKO UDAL KONTSEILUAK SORTZEKO DEKRETUA ONARTU DU

- **Portuen arloko kide anitzeko aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoak dira**

Gobernu Kontseiluak **Portuetako Udal Kontseiluak** sortzeko dekretua onartu du. Portuen arloko kide anitzeko aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabiltzen dituen eskumenen esparruan, eta portuetan eta itsasoko gaietan eskumena duen sailari, gaur egun Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, atxikita egongo dira.

Gernikako Estatutuak ezartzen du **Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela portuen arloan, betiere interes orokorreko gisa sailkatuta ez badaude**. Eskumen horren arabera, portuen arloko ondasunak eta zerbitzuak Estatutik Autonomia Erkidegora eskualdatu ziren 1982an.

Portuen arloko jarduketak nagusiki bideratzen dira portu-azpiegiturak **planifikatzera eta garatzera**, portu berriak eta portuko azpiegitura eta ekipamenduak eraikitze eta zabaltzeko proiektuak onartuz; portuko jabari publikoa **kudeatzera** eta ustiatzera, portuko espazioak eta erabilerak behar bezala mugatuta, horiek erabiltzeko behar diren titulu gaitzaileak emateko, aldatzeko eta iraungitzeko prozedurak ezarriz; eta portuko jabari publikoa **kontserbatu**, babestu eta defendatzera.

Hala ere, portu batek hartzen duen espazio fisiko hori kokatuta dagoen udalerraren zati da, eta lotura estua du kokatuta dagoen kostaldeko herriko bizitza sozial, kultural eta ekonomikoarekin. Ez da lurralde-zati isolatua; izan ere, portu-eremuan **interes** ugari elkartzen dira, eta beharrezkoa da, beraz, eragileek parte hartzea errazteko mekanismoak eta tresnak ezartzea, formula organikoak erabiliz.

Parte hartzeko printzipio hori betetzeko, 1991n Portuetako Aholku Kontseiluak sortu ziren, portuen arloko aholkularitza-, kontsulta- eta eztabaida-organo izateko, eta, portuen dimentsionamenduaren, flotaren, harrapaketen eta sektorean zuen eraginaren arabera, lautan eratu ziren: **Hondarribia, Getaria, Ondarroa eta Bermeo**.

Eusko Legebiltzarrak 2018an onartu zuen **Portuei eta Itsas Garraioari buruzko legeak** berriaz indargabetzen zuen aipatutako Portuetako Aholku Kontseiluak sortzeko araua, baina erregelamendu bidezko garapenera jotzen zuen Portuetako Udal Kontseiluak sortzeko, portuen arloan erakundeek eta gizarteak parte hartzeko organo gisa. Eta hori da, hain zuzen ere, onartu den

Erregelamenduaren helburuetako bat: 2/2018 Legea garatzea adierazitako kontseilu horiek sortzeari dagokionez.

Portuetako Udal Kontseiluak portuen arloko kide anitzeko **aholkularitza**-, kontsulta- eta eztabaida-organoak dira, Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabilitako eskumenen esparruan.

Portuetako Udal Kontseiluak arautuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen aurreikuspenek, onartu den arauak, horien barruan, hala badagokio, onartuko diren funtzionamendu-erregelamenduak eta, aipatutako arauetan aurreikusita ez dagoenerako, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean eta Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitartean xedatutakoak.

Eginkizunak

Amaia Barredo sailburuak honako hauek nabarmendu ditu portuetako udal-kontseiluen eginkizunen artean: a) Portu-eremu bakoitzeko **premiak** aztertzea eta portuko instalazioen eta azaleren erabilerak hobeto kudeatzea ekarriko duten jarduketak proposatzea; b) Portuetan eta itsas gaietan eskumena duen sailak idazten dituen jarraibide eta planei buruzko **aholkua ematea**; c) Autonomia Erkidegoko Administrazioak portuen arloan egiten dituen erregelamendu-xedapenen proiektuen **berri ematea**; d) Portuko ustiapena hobeto arrazionalizatzeko eta optimizatzeko neurri egokiak **proposatzea**; e) Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta portu-eremuan erantzukizuna duen toki-administrazioaren arteko koordinazioa **sustatzea** eta babestea; eta f) Portuko jabari publikoaren **ezagutza**, kontserbazioa eta babesa sustatzea.

Izendatutako zereginak betetzean, bereziki portuko instalazioen eta azaleren erabilerak hobeto kudeatzeko jarduketak proposatzeari dagokionez, bai eta espazioa antolatzeko eta planifikatzeko prozesuetan aholku emateari dagokionez ere, zeharkako alderdiak hartuko dira kontuan, hala nola, **segurtasuna, mugikortasuna eta irisgarritasuna**, orokorrean eta zerbitzu, ekipamendu eta espazio publikoetarako irisgarritasuna eta enplegurako eta ekonomiarako irisgarritasuna, bereziki genero-ikuspegitik.

Portuetako Udal Kontseiluen akordioak

Portuetako Udal Kontseiluek hartzen dituzten erabakiak ez dira lotesleak izango. Portuetako Udal Kontseiluen osaketa honako hau izango da: Kontseilu bakoitzak izango ditu **lehendakaria** izango den pertsona bat, **idazkari-lanak** egingo dituen pertsona bat eta **bokalak** izango direnak; kontseilu horien osaketan **emakumeen eta gizonen presentziak** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legean xedatutakoa errespetatu beharko du; kontseiluetako kideak izendatzerakoan, kontuan hartuko da bi hizkuntza ofizialetan **behar besteko gaitasuna** izatea; kontseilukideek hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal

izango dute beren jardueretan. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

Kontseiluko kide izateak **ez du inolako ordainsaririk ekarriko**, zerbitzuaren eta indarrean dagoen gainerako araudiaren ondorioz egokitu ahal zaizkion dieta eta kalte-ordainak alde batera utzita. Kontseilu bakoitzeko lehendakaria portuen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularra izango da, eta **eginkizun** hauek izango ditu: a) Kontseiluaren **ordezkaria** izatea; b) Ohiko eta ezohiko bilkuren **deialdia** adostea eta gai-zerrenda finkatzea; c) Bileretako **buru izatea** eta bilerak amaitzea, eztabaidak moderatzea eta bertan behera uztea, justifikatutako arrazoiengatik; d) **Aktei** oniritzia ematea; eta e) Kontseiluak berak izendatzen dizkion **gainerako eginkizun guztiak**.

Kontseilu berriak

Hemendik aurrera sortuko dira Hondarribia, Donostia, Orio, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, EA, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Armintza eta Plentziako portuetako udal-kontseiluak.

Portuen arloan eskumena duen saileko titular batek ezarriko ditu, agindu bidez, dekretu hau garatzeko eta ezartzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak, bai eta Portuetako Udal Kontseiluen osaketa aldatzeko ere, inguruabarrek hala egitea eskatzen dutenean. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAK 2,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU NEKAZARITZAREN, BASOGINTZAREN ETA ARRANTZA- ETA AKUIKULTURA-PRODUKTUEN SEKTOREETAKO IKERKETARA, GARAPENERA ETA BERRIKUNTZARA

- **BERRIKER** programaren barruan

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio gaur Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduari, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan, BERRIKER programaren barruan, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko laguntzen 2024ko deialdiaren oinarriak onartzeko denari. 2024ko eta 2025eko ekitaldietarako 2.5 milioi izendatu dira.

Agindu honetan arautzen diren ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako laguntzen helburua da efizientzia areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde jasangarrian laguntzea eta lankidetzaren sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza- eta akuikultura-produktuen sektoreetan.

2024ko eta 2025eko ekitaldietarako, aginduan aurreikusitako laguntzak finantzatzera 2.500.000 euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura, eta horietatik 500.000 euro 2024rako ordainketa-kredituari dagozkio eta 2.000.000 euro 2025erako konpromiso-kredituari. Honela banatuko da:

1.550.000 euro Elikaduraren eta zuraren balio-kateari lotutako I+G proiektuetarako laguntzei dagozkie, eta horietatik 250.000 euro 2024rako ordainketa-kredituari dagozkio eta 1.300.000 euro 2025rako konpromiso-kredituari.

795.000 euro nekazaritza- eta basogintza-sektoreetarako ezagutza espezifikoaren sortzeko eta zabaltzeko proiektuetarako laguntzei dagozkie, eta horietatik 175.000 euro 2024ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 620.000 euro 2025erako konpromiso-kredituari.

155.000 euro negozio-prozesuen berrikuntza-proiektuetarako laguntzei dagozkie, eta horietatik 75.000 euro 2024rako ordainketa-kredituari dagozkio eta 80.000 euro 2025erako konpromiso-kredituari. Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2024ko deialdian aplikatuko da.

Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAK MILIOI BAT EURO BIDERATUKO DITU KALITATE GASTRONOMIKOA SUSTATZEKO “GASTROBIKAIN” PROGRAMARI ATXIKITAKO LAGUNTZETARA

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduari, kalitate gastronomikoa sustatzeko **GASTROBIKAIN** programari atxikitako laguntzetarako 2024rako deialdia egiten duenari. 2024. eta 2025. ekitaldietarako 1.000.050 euro aurreikusten dira.

Aurreikusitako laguntzen helburua da gastronomiaren eta elikaduraren sektorean estrategikotzat jotzen diren ekimen gastronomikoei laguntza ekonomikoa ematea. Horretarako, bi motatako laguntzak proposatzen dira: alde batetik, negozio gastronomiko berri bat sustatzeko asmoa duten eta gastronomiako tituludun berri diren **gazteentzako** laguntzak eta, bestetik, bikaintasuna sendotu nahi duten aintzatetsitako gastronomia-negozioentzako laguntzak.

Laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako kredituetatik bakarrik etorriko dira, eta 1.050.000 euro izango dira guztira; horietatik 350.000 euro 2024ko ekitaldiari dagozkio eta 700.000 euro 2025eko ekitaldiari.

Gehieneko diru-zuzkidura horretatik, 630.000 euro proiektu gastronomiko berriak sustatzeko programara bideratuko dira, 210.000 euro 2024ko ekitaldiari dagozkio eta 420.000 2025eko ekitaldiari; eta 420.000 euro bikaintasuna sendotzeko programara bideratuko dira, eta horietatik 140.000 euro 2024ko ekitaldiari dagozkio eta 280.000 2025eko ekitaldiari.

Programetako baten zuzkidura agortzen ez bada, sobera geratu den kopurua beste programari gehituko zaio, baldin eta programa horretan diruz lagundu daitezkeen proiektuak geratuko balira.

Laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, kopuru hauekin: negozio gastronomikoen proiektu berrien kasuan, diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren % 40 gehienez, proiektu bakoitzeko 50.000 euroko mugarekin. Eta bikaintasuna sendotzeko proiektuen kasuan, diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren % 40 gehienez, proiektu bakoitzeko 80.000 euroko mugarekin.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DIRECTA A LA PELÍCULA BIOGRÁFICA SOBRE BERTSOLARI PEDRO MARI OTAÑO

El Consejo de Gobierno, a petición del departamento de Cultura y Política Lingüística, ha aprobado en su reunión de hoy la concesión de una subvención directa de 40.000 euros a la productora Eguzki Art Zinema. Esta empresa, a través de la película "Ombuaren itzala", quiere poner en valor la biografía del bertsolari Pedro Mari Otaño y la importancia de su aportación al bertsolarismo. El Gobierno colaborará en la financiación de este proyecto.

Pedro Mari Otaño fue bertsolari y poeta de renombre, apreciado en su día por el lirismo de sus versos, dados a conocer en forma de "bertso paperak". Este proyecto pretende sacarlo del "olvido" y para ello, está abordando la película "Ombuaren itzala". Esta película está promovida, producida y dirigida por el cineasta Patxi Bisquert y el Gobierno Vasco colaborará en su financiación a través de esta subvención. El rodaje ha tenido lugar en Euskadi y Argentina y está previsto que se estrene en otoño de 2024.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 2,7 MILLONES DE EUROS PARA PROGRAMAS DE REFUERZO LINGÜÍSTICO

- **Las ayudas se destinarán a sufragar gastos ligados a la contratación de profesorado de refuerzo lingüístico o a la adquisición de recursos bibliográficos y didácticos para la implementación de los programas**

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco destinará este curso 2024-2025 un total de 2,7 millones de euros en subvenciones para la ejecución de programas de refuerzo lingüístico. subvenciones para el refuerzo lingüístico del Alumnado de Reciente Incorporación .

Esta línea de ayudas dotada de 2,7 millones de euros, pretende dar respuesta a las necesidades del alumnado que se incorpora al sistema de educación sin el dominio del idioma. Adaptar la educación a un contexto multicultural se hace necesario para que ninguna alumna o alumno se quede atrás. La mejora en la capacidad de comunicación en las lenguas oficiales es un eje fundamental para facilitar la incorporación del Alumnado de Reciente Incorporación (ARI) al sistema educativo. Por lo tanto el programa de refuerzo lingüístico es una de las herramientas del Sistema Vasco de Educación para garantizar igualdad de oportunidades y el respeto a la diversidad.

La incorporación del alumnado migrado al sistema escolar de la Comunidad Autónoma Vasca se produce a lo largo de todo el curso escolar de forma continua en cantidad, procedencia y destino. De ahí la importancia de que estas ayudas estén disponibles, ya que están ideadas para responder a las necesidades del alumnado de reciente incorporación que se haya matriculado por vez primera en el sistema educativo vasco de enseñanza no universitaria desde el 31 de enero de 2023. Las ayudas se destinarán a sufragar gastos ligados a la contratación de profesorado (profesorado de refuerzo lingüístico), o a la adquisición de recursos bibliográficos y didácticos para la implementación de metodologías innovadoras.

Educación

UN MILLÓN DE EUROS PARA EL SALTO ENTRE LA FP Y LA VIDA LABORAL

- **El Departamento de Educación destina 999.538 euros para estancias en empresa del alumnado de formación profesional**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación Begoña Pedrosa, la Orden por la que se convocan becas para la estancia en la empresa del alumnado de Formación Profesional que curse el módulo de FCT (Formación en Centro de Trabajo). Las estancias se desarrollarán entre septiembre y marzo de este curso académico.

Gracias a esta convocatoria el alumnado tendrá la posibilidad de prolongar durante tres meses más su estancia en la empresa en la que ha realizado el módulo FCT, una vez finalizado éste y hasta que sea evaluado. Es decir, viene a cubrir un periodo de tiempo para que el alumnado tenga posibilidad de continuar hasta el verano.

El número de ayudas que concederá el Departamento de Educación asciende a 479 con un importe total máximo de 1.800 euros netos por beneficiario (600 euros mensuales). La concesión de la ayuda incluye, además de los 600 euros mensuales que percibirá la persona beneficiaria, el alta en el Régimen de la Seguridad Social.

El 20% del total de las becas, 96 becas, estarán destinadas al alumnado de Formación Profesional Básica. El 50%, 239 becas, para el alumnado de ciclos formativos de Grado Medio. El 30% restante, 144 becas, serán para las alumnas y alumnos de ciclos formativos de Grado Superior.

La importancia recibir de formación práctica

Todas las enseñanzas de FP incluyen, en su segundo año, el módulo denominado Formación en Centro de Trabajo (FCT). Se trata de una fase de formación práctica que se desarrolla en un entorno real de empresa y que, como regla general, el alumnado lo realiza una vez superados todos los módulos profesionales del ciclo formativo que cursa.

Esta convocatoria, que alarga la estancia en la empresa hasta un máximo de tres meses más, sigue el propósito de que el alumnado de FP mejore sus competencias profesionales, tanto técnicas como transversales, para así también mejorar su empleabilidad y el acceso al mercado laboral, una vez obtenga la titulación.

Educación

EL GOBIERNO VASCO IMPULSA LAS IDEAS EMPRENDEDORAS DEL ALUMNADO DE FP

- **Gracias a la inclusión del emprendimiento en la Formación Profesional, se sean al año de más de 70 empresas y su índice de supervivencia es del 70%**

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy en Consejo de Gobierno la convocatoria de subvenciones para fomentar la cultura emprendedora entre el alumnado de último curso de Formación Profesional. En esta etapa, el alumnado cuenta con el conocimiento técnico necesario del sector y es capaz de desarrollar una idea de negocio con ayuda del profesorado. Surgen así proyectos de simulación empresarial que consisten en desarrollar ideas de negocio (prototipos de producto o de servicios).

Fomentar la cultura emprendedora es uno de los objetivos de la Formación Profesional. Potenciar entre el alumnado las competencias profesionales y personales para impulsar las habilidades emprendedoras es, a su vez, un pilar de su formación.

Esta ayuda que convoca el Departamento de Educación del Gobierno Vasco supone una inversión de 166.000 euros y la cuantía máxima por centro es de 10.000 euros.

Gracias al trabajado desarrollado en la FP de Euskadi, es habitual la creación de más de 70 empresas al año por parte del alumnado. Las alumnas y alumnos trabajan desde su centro, y cuentan con la monitorización y acompañamiento del profesorado de centros. La tasa de supervivencia de las empresas creadas gracias a la apuesta de la Formación Profesional, llega al 70%.

Este impulso al emprendimiento en las aulas permite trabajar diferentes capacidades y actitudes concretas; la innovación, la creatividad, la autonomía, la autoconfianza, el sentido de la responsabilidad, la iniciativa... son características que el alumnado adquiere gracias a la puesta en marcha de sus proyectos en compañía del profesorado y su centro de FP.

Ideas de negocio alineados con criterios de cohesión social y sostenibilidad

Las ideas que desarrollan las alumnas y alumnos de FP deben cumplir con criterios acordes con la innovación, con los Objetivos de Desarrollo Sostenible y con los valores de economía social. Desde los centros se encauzan los proyectos a desarrollar los siguientes aspectos:

- Impulsar el uso de tecnologías avanzadas. Tales como: digitalización (realidad virtual, realidad aumentada, inteligencia artificial, etc.), conectividad, robotización y automatización, ciberseguridad, análisis de datos.
- Trabajar la sostenibilidad: eficiencia energética, economía sostenible, economía circular, salud 4.0, Biociencia y Biotecnologías, etc.
- Contribuir sector industrial y/o de servicios avanzados.
- Estar alineado con el desarrollo de los Objetivos de Desarrollo Sostenible y/o con los valores de la economía social.
- Contribuir a la integración social de la diversidad y de los colectivos en riesgo de exclusión o tener un componente social para mejorar la calidad de vida de las personas.
- No reproducir roles y estereotipos de género y/o fomentar el emprendimiento femenino.
- Utilizar el euskera en el desarrollo del proyecto.

Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO DE CREACIÓN DE LOS CONSEJOS MUNICIPALES PORTUARIOS

- **Órganos colegiados de asesoramiento, consulta y debate en materia portuaria**
- **Adscritos al departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca que dirige Amaia Barredo**

El Consejo de Gobierno ha aprobado el decreto por el que se crean los **Consejos Municipales Portuarios**, órganos colegiados de asesoramiento, consulta y debate en materia portuaria, dentro del ámbito de las competencias ejercidas por la Administración de la Comunidad Autónoma y que estarán adscritos al departamento competente en materia de puertos y asuntos marítimos, actualmente el de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca.

El Estatuto de Gernika establece la **competencia** exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de puertos siempre que no estén clasificados como de interés general. En virtud de esta competencia se realizaron los traspasos de bienes y servicios en materia de puertos del Estado a la Comunidad Autónoma en 1982.

Las actuaciones en materia portuaria están encaminadas esencialmente a la planificación y desarrollo de las infraestructuras portuarias con la aprobación de proyectos para la construcción o ampliación de nuevos puertos e infraestructuras y equipamientos portuarios, a la gestión y explotación del dominio público portuario con la necesaria delimitación de los espacios y usos portuarios estableciendo procedimientos para el otorgamiento, modificación y extinción de aquellos títulos habilitantes necesarios para su uso, así como a la conservación, protección y defensa del dominio público portuario.

Sin embargo, el espacio físico que abarca un puerto forma parte del término municipal en el que está enclavado, guardando **estrecha relación con la vida social, cultural y económica de las localidades costeras** en las que se ubica. No se trata de una porción de territorio aislado ya que el ámbito portuario es un lugar donde los intereses que concurren son numerosos haciendo necesaria la adopción de mecanismos e instrumentos para facilitar la participación de diversos agentes mediante la utilización de fórmulas de carácter orgánico.

Para dar cumplimiento a ese principio de participación fueron creados, en 1991, los **Consejos Asesores de Puertos** como órganos de asesoramiento, consulta y debate en materia portuaria que, en función de su dimensionamiento, flota, capturas e incidencia en el sector, fueron circunscritos a cuatro puertos: Hondarribia, Getaria, Ondarroa y Bermeo.

El Parlamento Vasco aprobó, en 2018, la ley de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, que derogaba expresamente la norma por la que se creaban los citados Consejos Asesores de Puertos, si bien remitió al desarrollo reglamentario la creación de los Consejos Municipales Portuarios como órganos de participación institucional y social en materia de puertos. Y ése es precisamente uno de los objetos del reglamento que se aprueba: el **desarrollo** de la Ley 2/2018 en lo referente a la creación de los referidos consejos.

Los Consejos Municipales Portuarios son órganos colegiados de asesoramiento, consulta y debate en materia portuaria, dentro del ámbito de las competencias ejercidas por la Administración de la Comunidad Autónoma.

Los **Consejos Municipales Portuarios** se regirán por las previsiones de la Ley 2/2018, de 28 de junio, de puertos y transporte marítimo del País Vasco, por la norma que se aprueba, por el reglamento de funcionamiento que, en su caso, se apruebe en el seno de estos y, en lo no previsto por las citadas normas, por lo dispuesto en la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del sector público vasco y en los artículos 15 a 18 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público.

Funciones

La Consejera **Amaia Barredo** destaca, entre las funciones de los consejos municipales portuarios las siguientes: a) Analizar las diferentes **necesidades** existentes en cada ámbito portuario y proponer aquellas actuaciones que redunden en una mejor gestión de los usos de las instalaciones y superficies portuarias; b) **Asesoramiento** de las directrices y planes que se redacten por el Departamento competente en materia de puertos y asuntos marítimos. c)

Informar sobre los proyectos de disposiciones reglamentarias que se elaboren en materia portuaria por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma. d) **Proponer** las medidas adecuadas para una mayor racionalización y optimización de la explotación portuaria. e) **Promover** y apoyar la coordinación entre la administración autonómica y la administración local con responsabilidad sobre el territorio portuario; y, f) Promover el **conocimiento**, conservación y protección del dominio público portuario.

En el ejercicio de las funciones encomendadas, principalmente en la propuesta de actuaciones que redunden en una mejor gestión de los usos de las instalaciones y superficies portuarias, así como, en el asesoramiento en los procesos de ordenación y planificación espacial, se atenderá a cuestiones y aspectos transversales como la **seguridad, movilidad y accesibilidad** en general y accesibilidad a servicios, equipamientos y espacio público y accesibilidad al empleo y a la economía en particular desde una perspectiva de género.

Acuerdos de los Consejos Municipales Portuarios

Los acuerdos que se adopten por los Consejos Municipales Portuarios no tendrán, carácter vinculante. La composición de los Consejos Municipales Portuarios será la siguiente: Cada Consejo estará integrado por una persona que ejerza la **presidencia**, una persona que ejerza la **secretaría** y las que ostenten la condición de **vocal**; La **presencia de mujeres y hombres** en la composición de estos consejos deberá respetar lo dispuesto en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia; En el nombramiento de los miembros de los consejos se tendrá en cuenta la **capacitación suficiente** en las dos lenguas oficiales; Las personas integrantes de los mismos podrán utilizar cualquiera de las lenguas oficiales en sus actuaciones. Se garantizará el uso de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La pertenencia al Consejo **no dará lugar a retribución** alguna, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que por razón del servicio y demás normativa vigente les pudieran corresponder. La presidencia de cada Consejo corresponderá a la persona titular de la Dirección competente en materia de puertos, que tendrá como **funciones**: a) Ostentar la **representación** del Consejo b) Acordar la **convocatoria** de sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día. c) **Presidir** y levantar las sesiones, moderar el desarrollo de los debates y suspenderlos por causas justificadas d) Visar las **actas** e) Cuantas **otras funciones** le sean encomendadas por el propio Consejo

Nuevos Consejos

A partir de ahora se crean los Consejos Municipales Portuarios de los puertos de Hondarribia, Donostia, Orío, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Armintza y Plentzia.

Una persona titular del departamento competente en materia de puertos para establecer, mediante orden, cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto, así como a modificar la composición de los Consejos Municipales Portuarios cuando las circunstancias lo aconsejen. El decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

EL DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA DESTINA 2,5 MILLONES DE EUROS A LA INVESTIGACIÓN, DESARROLLO E INNOVACIÓN DE LOS SECTORES AGRÍCOLA, FORESTAL Y PRODUCTOS DE PESCA Y ACUICULTURA

- **Dentro del Programa BERRIKER**

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno a la orden de Amaia Barredo, Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, por la que se aprueban, para el año 2024, las bases de la convocatoria de ayudas – cuantificadas en 2,5 millones de euros para los años 2024 y 2025- a la **Investigación, Desarrollo e Innovación de los sectores agrícola, forestal y de los productos de la pesca y la acuicultura** de Euskadi dentro del Programa **BERRIKER**.

Las ayudas a la investigación, desarrollo e innovación reguladas en la presente Orden tienen por finalidad aumentar la **eficiencia** y mejorar la **competitividad** y contribuir al crecimiento sostenible y fomentar la cooperación en los sectores agrícola, forestal y de los productos de la pesca y la acuicultura en Euskadi.

Para los ejercicios 2024 y 2025, se destinan a la financiación de las ayudas previstas en la orden, la cantidad de 2.500.000 euros, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, correspondiendo 500.000 euros a crédito de pago del ejercicio 2024 y 2.000.000 euros a crédito de compromiso 2025, distribuidos de la siguiente manera:

1.550.000 euros se atribuyen a las ayudas a proyectos de I+D vinculados a la Cadena de Valor de la Alimentación y de la Madera (CVAM), correspondiendo 250.000 euros a crédito de pago para el año 2024 y 1.300.000 euros a crédito de compromiso para el año 2025.

795.000 euros para ayudas a los proyectos de generación y difusión de conocimiento específico para los sectores agrícola y forestal, correspondiendo 175.000 euros a crédito de pago para el año 2024 y 620.000 euros a crédito de compromiso para el año 2025.

155.000 euros para ayudas a proyectos de innovación en procesos de negocio, correspondiendo 75.000 euros a crédito de pago para el año 2024 y 80.000 euros a crédito de compromiso para el año 2025. La orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación y será aplicable a la convocatoria 2024.

Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

EL DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA DESTINARÁ 1 MILLÓN DE EUROS A AYUDAS ACOGIDAS AL PROGRAMA DE PROMOCIÓN DE LA CALIDAD GASTRONÓMICA “GASTROBIKAIN”

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno a la orden la Consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca por la que se convocan, para el año 2024, las ayudas acogidas al programa de promoción de la calidad gastronómica, **GASTROBIKAIN** que asciende a **1.000.050 euros** para los años 2024 y 2025.

La finalidad de las ayudas previstas es el apoyo económico a iniciativas gastronómicas que se consideran estratégicas en el sector de la gastronomía y la alimentación. Para ello, se proponen ayudas de dos tipos: por un lado, ayudas a **personas jóvenes** recién tituladas en gastronomía y que emprenden nuevos negocios gastronómicos por personal recientemente titulado y a la consolidación de la excelencia, por parte de negocios de gastronomía de reconocido prestigio.

Los recursos económicos destinados a financiar las ayudas procederán exclusivamente de los créditos establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco que ascienden a la cantidad de 1.050.000 euros, de los que 350.000 euros corresponden al ejercicio **2024** y 700.000 euros al ejercicio **2025**

De esa dotación global máxima, 630.000 euros se destinarán al programa para promover **nuevos proyectos gastronómicos**, 210.000 euros con cargo a 2024 y 420.000 euros con cargo a 2025, y 420.000 euros se destinan al programa de **consolidación de la excelencia**, de los que 140.000 euros corresponden a 2024 y 280.000 euros a 2025.

En el caso de que no se agote la dotación de uno de los programas, la cantidad sobrante acrecerá al otro, en el caso de que en éste quedaran proyectos susceptibles de ser subvencionados.

Las **ayudas consistirán en subvenciones a fondo perdido** en las siguientes cuantías: nuevos proyectos de negocios gastronómicos: hasta un máximo del 40% de la inversión subvencionable, con un máximo de 50.000 euros por proyecto; y consolidación de la excelencia, hasta un máximo del 40% de la inversión subvencionable, con un máximo de 80.000 euros por proyecto.